

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak PFEZaren erreforma mailakatuagoa egingo du, Estatuan baino zerga-ahalegin txikiagoa ekarriko duena

Presio baliokide bat izateko betebeharra duen arren, autonomia fiskala erabiliko du estatuko proposamena hobetzeko

Miércoles, 11 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran erabaki du Pertsona Fiskoien Errentaren Gaineko Zergaren (PFEZ) aldaketa bat izapidetzea, erregimen komunerako gobernu zentralak iragarritako neurriak ikusita (autonomia erkidego guztiei eragiten diete, Nafarroari eta hiru euskal aldundiei izan ezik). Gobernuak eledun Juan Luis Sánchez de Muniáin-ek Gobernuaren asteroko bilkura amaitzean azaldu duenaren arabera, aldaketa hori Gobernuak hurrengo bilkura batean onartuko den foru-legearen proiektu batean islatuko da.



Nafarroako Jauregiaren aurrealdea.

Gobernuak baloratu du, Foru Erkidegoak Estatuak gainerako baliokide den presio fiskal globalari eutsi behar diola, Estatuarekin duen Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoak jasotzen duenez; beraz, erregimen komunean izandako PFEZren aldi baterako igoerak Nafarroan indarrean dauden tipoak berrikeratzen ditu. Nolanahi ere, esparru horretan, Nafarroak erreforma bere foru-erregimenetik ondorioztatutako bere erabateko autonomia fiskalaren babesean egingo du, eta ez du estatuko neurrien transposizio zuzenik egingo.

Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak eledunak azaldu duenez, Foru Gobernuak PFEZren erreforma hobetzen ahaleginduko da, beti egiten duen moduan, sistema mailakatuagoa izan dadin eta zerga-ahalegina Estatuan baino txikiagoa gerta dadin.

Beste neurri batzuk

Nafarroako Gobernuak ere funtzio publikoan bere neurriak lantzea erabaki du. Neurri horiek funtzio publikoko lan-erregimeneko zenbait alderdi aztertuko ditu Gobernuak beste bilkura batean onar ditzaten.

Gobernu zentralak arlo ekonomikoan erabakitako beste erabakiei dagokienez, Foru Gobernuak kenkaria erreperatzea aztertu du Espainiako Gobernuak etxebizitza erostegatik; kenkari hori ez du Nafarroak erreperatu beharrik, ez baitzen kendu. Bestalde, etxebizitza

berria erostean ikaragarri murriztutako BEZaren mantentzea aplikazio zuzeneko da Nafarroan, Estatuko eskumenekoa den zeharkako zerga bat izatean.